

Lan Eskaintzaren erditze mingarria.

Ia bederatzi hilabete igaro dira Nafarroan hauteskundeak izan, eta gaur egun gobernuaren sostengatzen duten lau alderdiek Parlamentuan gehiengoa erdietsi zutenetik. Hezkuntzan lan eskaintza publikorik aspaldi ez dugu izan, eta aste honetan gobernu honek egindako lehenengoa dugu aurrean.

Erditzearen ondorengo momentuan gaude, eta erdimina leundu ezinik. Azkenengo txanpa biziki bortitza izan da: etengabeko tratu-txarrak, txantajeak, gezurrak, lehengo pribilegioei eusteko ahaleginak, joko zikinak... eta horren guztiaren ondorioz, ikastetxeetan eta jendaratean giroa bera mikaztu egin da. Mendozaren kudeaketa baldarra hizpide izan da, bai eta gobernu barruan dauden 2 alderdiren jokamoldea ere. Hauxe izan da, zalantzarik gabe, Uxue Barkosen gobernuaren bera higatzeko gai nagusia, eta Nafarroan, zoritxarrez ohikoa izaten den bezala, euskararen politizazioaz baliatu dira. Nafarroako hizkuntza errealitatea argudiatu dute hasierako LEP geldiarazteko, lanpostu gehiago egonkortzen baitzuen euskaraz erdaraz baino. Gure hizkuntzak jasotzen omen duen lehentasunezko trataera esan izan dute. Asaldagarriena da leporaketa hori egin duten alderdi eta sindikatuak ingelesaren irakaskuntza lehenetsi dutela kosta ahala kosta, erabateko lehentasuna ematen eta euskara zokoratzen. Bestelako LEP nahi izan dute, eta horretan ingelesaren ezagutza ezinbesteko jotzen dute. Hemen Nafarroako hizkuntza errealitatea ez dute aipatu ere egiten.

Departamentuaren kontrako gurutzadaren buru I-E eta CCOO ikusi ditugu, eta gobernu "nazionalista" rekin ez nahasteko ahalegin zikinak eraman dituzte aurrera, eta erdal irakasleen defendatzaileen bandera zutitu nahian ibili dira. Ez koalizioak, ez sindikatuak ez dute azaldu nola mantenduko dituzten irakasle erdaldunen lanpostuak PAI hedatzen jarraitzen bada, biek ala biek sostengua erakutsi baitiote PAIri.

Eta ia azken momentuan, estrategia politiko-sindikal hori aski ez balitz, Estatuaren Abokatuak helegitea jarri du, PPK hala eskatuta. Nafarroako Gobernuak badaezpadako gelditze eskaerari kasu egin, eta hasierako LEP aldatu egin du. Nafarroako Gobernuak eskaintza birmoldatu eta arte eta moldez, edo PPren legeari esker, I-E eta CCOOk luzaturiko proposamenaren antza osoa du. Harro mintzatu dira birmoldaketaz. Axolagabekeria handia erakutsi dute, eta haien proposamenari heldu izana lehenesten dute oraingo diskurtsoan harro, eta bost axola zaie intineritate handiena dagoen espezialitatean – eta ondorioz pertsona gehien azterketa prestatzen ari zen espezialitateetan – lanpostu bat bera ere ez egonkortzea.

Bestalde, Mendozak ausardia falta erakutsi du, eta izandako presioen ondorioz, alde batean utzi du Nafarroako irakasle elebidunen eskubideen defentsa. 2008an Mendozak, Koldo Martinez eta Estebe Petrizanekin batera hizkuntzen arabarako zerrenda bereiztuen aurkako helegitea sinatu zuten. Orain, berriz, bereizketa hau betikotzen – edo luzatzen – duen Agindu Forala sinatzekotan dago.

Azken momentuko asmakizuna xelebrea da: azterketak bi egunetan egitea. Gauzak honela euskaldunek bi egunetan egin beharko dute azterketa, eta bi programazio aurkeztu... Erdibideko erabaki honek ez du inoren nahia asetu.

Nafarroan egoera zaila bizi dugu hezkuntzan. Mahai Orokorrean eta Mahai Sektorialean gehiengo sindikalak erakutsi duen jarrera ez dute kontuan hartu. Akordioa erdiestea – Beaumontek dio – ez da beharrezkoa. Gauzak honela, zertarako deitzen gaituzte? Ez dakigu zein puntutaraino ezagutzen dituzten irakasleen artean zabaldu den haserre eta frustrazioa. Eta honen erantzulea ez da soilik gobernuaren kudeaketa kaxkarra, oposizio politiko-sindikalak erabili duen joko zikina eta zabaldu dituen gezur eta beldurrek ondorioa izan dute, Nafarroako egunkari jakin baten laguntza osoarekin. Hizkuntza apartheidak Nafarroan bizirik dirau, baina noiz arte?

Orain, ia bederatzi hilabete beranduago umeari izena jarri behar zaio. Sortzaileek ez dakite ongi zein jarri, aukeran baitituzte Ana, Marisa edo Tere. Familian ez dute kontsentsurik ikusten izena euskaraz jartzeko. Edozein izena aukeratuta ere, ziur gaude mintzatzen hasten denean dagozkion eskubideen aldeko hitzak esango dituela, hizkuntza apartheidaren kontra borrokatuko dela, eta gaitasun zerrendak egiten diren aldioro hortxe izango dela, bakarra delako.